

2. oinarria.- Banatu beharreko zenbateko orokorra

Banatu beharreko zenbateko orokorra (A) Udalaren Aurrekontuan urtero eta xede honetarako 910.434 partidan jartzen den kopurua izango da. 2009 ekitaldirako, kopurua 140.000 eurokoa da.

Zenbateko orokor hori hiru zenbateko berezietan zatituko da: finkoa, aldagarria eta konpentsazio funtsa.

3. oinarria.- Tarte finkoa: zenbatekoa eta banaketa

Tarte finkoak (B) urtero Udalaren Aurrekontuan, 910.434 partidan, jartzen den kopuruaren ehuneko 47ari dagokion kopuru osoa hartuko du.

Zenbateko hori berdinki banatuko da banaketan parte hartzeko eskubidea duten administrazio batzar guztien artean.

4. oinarria.- Tarte aldagarria: zenbatekoa eta banaketa

Tarte aldagarriak (C) urtero Udalaren Aurrekontuan, 910.434 partidan, jartzen den kopuruaren ehuneko 48,14ari dagokion kopuru osoa hartuko du.

Hura banatzeko, batu egingo dira Amurrioko udal mugarteko administrazio batzar bakoitzari Arabako Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsaren banaketaren barruan behin betiko esleitzen zaizkion kopuruak.

Batzar bakoitzak aurreko paragrafoan deskribatutako batuketan duen partaidetza portzentaje berdinari dagokion tarte aldagarriko portzentajea eskuratuko du.

5. oinarria.- Konpentsazio funtsa: zenbatekoa eta banaketa

Kompentsazio funtsak (D) urtero Udalaren Aurrekontuan, 910.434 partidan, jartzen den kopuruaren ehuneko 4,86ari dagokion kopuru osoa hartuko du.

Administrazio batzar bakoitzaren kasuan, alderatu egingo da tarte finko eta aldagarrien batuketak (B+C) 2008ko Aurrekontuetan izen horrekin esleitutako kopuruekin.

Hura hau baino txikiagoa duten administrazio batzarren kasuan, haiei kasuan kasuko kopurua esleituko zaie, biek berdín amaitu dezaten.

Kompentsazio funtsaren zenbateko osoa egin beharreko konpentsazioen zenbateko osoa estaltzera iritsiko ez balitz, banaketa hainbanatu egingo litzateke batzar bakoitzaren konpentsazio beharrari jarraiki.

Kompentsazio funtsean soberan geratzen den zenbatekoa tarte aldagarriaren irizpide berdinekin esleituko da.

6. oinarria.- Diru sarreretako partaidetzak ordaintzea

Aurreko oinarrietan deskribatutako irizpideei jarraiki kalkulaturako diru sarreretako partaidetzak Amurrioko Udalak ordainduko ditu jarraian adieraziko den moduan:

- Tarte finkoa urte bakoitzeko lehenengo hiruhilekoan zehar ordainduko da.
- Tarte aldagarria urte bakoitzeko bigarren hiruhilekoan zehar ordainduko da.
- Kompentsazio fondoa urte bakoitzeko laugarren hiruhilekoan zehar ordainduko da.

Epe bakoitzean ordaintzen diren zenbatekoak konpentsazioaren xede izango dira administrazio batzar bakoitzak Amurrioko Udalarekin eduki ditzakeen kreditu zordunekin.

30. OINARRIA.- 2 URTEKO IKASGELEN ZERBITZUA EMATEGATIKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIEN BERARIAZKO ORDENANTZA**1. Lege eta ekonomia esparrua**

Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean, Administrazioak pertsona publiko zein pribatuei egiten dizkien "diru entrega" moduan definitzen dira dirulaguntzak, betiere, baldintza hauek beteta:

- Entrega onuradunen zuzeneko kontraprestaziorik gabe egitea.

- Halako helburua lortzeari, halako proiektua gauzatzeari, halako ekintza egiteari, halako jarrera izateari edo halako egoera gertatzeari lotuta ematea dirua. Horako horiek eginda edo egiteke egon daitezke,

Base 2.- Importe global a repartir

El importe global (A) a repartir será la cantidad que anualmente se consigne en el Presupuesto del Ayuntamiento con tal fin en la partida 910.434, y que para el ejercicio 2009 asciende a 140.000 euros.

El mencionado importe global se dividirá en tres importes diferenciados: fijo, variable y fondo de compensación.

Base 3.- Tramo fijo: importe y reparto

El tramo fijo (B) alcanzará un importe total equivalente al 47 por ciento de la cantidad que anualmente se consigne en el Presupuesto del Ayuntamiento en la partida 910.434.

Dicho importe se repartirá a partes iguales a cada una de las Juntas Administrativas con derecho a participar en el reparto

Base 4.- Tramo variable: importe y reparto

El tramo variable (C) alcanzará un importe total equivalente al 48,14 por ciento de la cantidad que anualmente se consigne en el Presupuesto del Ayuntamiento en la partida 910.434.

Para su reparto se sumarán las cantidades que anualmente se asigne definitivamente a cada Junta Administrativa del termino municipal de Amurrio dentro del reparto del Fondo Foral para la Financiación de las Entidades Local de Álava.

Cada Junta recibirá el porcentaje de tramo variable idéntico a su porcentaje de participación en al suma descrita en el párrafo anterior.

Base 5.- Fondo de compensación: importe y reparto

El fondo de compensación (D) alcanzará un importe total equivalente al 4,86 por ciento de la cantidad que anualmente se consigne en el Presupuesto del Ayuntamiento en la partida 910.434.

Para cada Junta Administrativa se comparará la suma de los tramos fijo y variable (B + C) con las cantidades nominativamente asignadas en los Presupuestos de 2008.

Para aquellas Juntas Administrativas en que aquélla sea inferior a ésta, se le asignará la cantidad correspondiente para que ambos términos se igualen.

Si el importe total del fondo de compensación no alcanzara el importe total de las compensaciones a realizar, el reparto se prorrateará en función de la necesidad de compensación de cada Junta

El importe del fondo de compensación sobrante se asignará con los mismos criterios que el tramo variable.

Base 6.- Pago de las participaciones en ingresos

Las participaciones en ingresos calculadas según los criterios descritos en las Bases anteriores, serán satisfechas por el Ayuntamiento de Amurrio, de la siguiente manera:

- El tramo fijo se abonará durante el primer trimestre de cada año.
- El tramo variable se abonará durante el segundo trimestre de cada año.
- El fondo de compensación se abonará durante el cuarto trimestre de cada año.

Los importes abonados en cada plazo serán objeto de compensación con los créditos deudores que cada Junta Administrativa mantenga, en su caso, con el Ayuntamiento de Amurrio.

BASE 30.- ORDENANZA ESPECÍFICA DE LAS BASES PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES POR LA PRESTACIÓN DEL SERVICIO DE AULAS DE 2 AÑOS**1. Marco legal y económico**

La Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones define las subvenciones como las "entregas dinerarias" de la Administración a personas públicas o privadas, cuando se dan los siguientes requisitos:

- Que la entrega se realice sin contraprestación directa de los beneficiarios.

- Que la entrega esté sujeta al cumplimiento de un determinado objetivo, la ejecución de un proyecto, la realización de una actividad, la adopción de un comportamiento singular, ya realizados o por

eta onuradunak zehaztutako betebeharrak formal zein materialak bete beharko ditu.

- Proiektuak, ekintzak, jarderak edo finantzaturiko egoerak hauxe izatea helburu: erabilera publikoko, interes sozialeko edo xede publikoko ekintzak sustatzea.

38/2003 Legearen 9. artikulua ezartzen duenez, dirulaguntzak eman orduko, legeak ezartzen duen bezala onartu beharko dira dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak ezartzen dituzten arauak.

Oinarri hauen xedea 2 urteko ikasgeletan matriculatu diren ikasleei zuzendutako hezkuntza zerbitzua eskaintzen duten ikastetxeei laguntzak emateko esparrua arautzea da, horren bitartez jarduerak horrek Amurrioko udalerrian sor dezakeen defizitari aurre egiten laguntze aldera.

2. Xedea eta baldintza orokorrak

2.1. Dirulaguntzaren xede izango dira publikoak ez diren Amurrioko ikastetxeetan 2 urteko ikasgeletan eman beharreko hezkuntza zerbitzuak.

2.2. Dirulaguntza hauen onuradunak diren ikastetxeek ezingo dute eskuratu behar baino finantzaketa gehiago 0tik 2 urtera bitarteko aldiari eman daitezkeen dirulaguntza ezberdinen bitartez.

2.3. Bi urteko geletan funtzioak garatzen dituzten langileen kostuak dira bakarrik aintzat hartuko direnak, eta hori ikastetxeko Zuzendaritzak egindako ziurtagiriaren eta kasuan kasuko gastu frogagiriaren bitartez egiaztatuko beharko da. Edonola ere, nominen zenbatekoak ezin izango dira sektorerako onetsitako urteko hitzarmena baino baxuagoak izan, eta kopuru hori izango da kontzeptu horrengatik justifikatu beharreko gehieneko kopurua.

2.4. Hitzarmen honen xedetik kanpo geratzen dira ere nominak edota fakturak aurkeztearen bitartez egiaztatuko ez diren gastuak, adibidez hornidura gastuak edo amortizazioak.

2.5. Oinarri hauen ondotik datozen dirulaguntzen ordainketa jarraian adieraziko den moduan egingo da:

- Aurreko klausulan gehieneko kopuru bezala jarritako zenbatekoaren hiru laurden hitzarmena sinatzen den unean, eta hitzarmena 2.11 klausulari jarraiki sinatuko da.

- Gainerako zenbatekoa behin ikasturtea amaituta ordainduko da, ikastetxeak aurrekontuaren kasuan kasuko likidazioa eta 2.9 puntuan aipatutako ikasle zerrenda aurkeztu ondoren.

- Edonola ere, azkeneko kopuru hori ez da ordainduko aurreko paragrafoan aipatutako agiriarekin egiaztatzen egiten den arte. Horretarako, hamabost egun lehenago, udaletxera bertaratu beharko da agiriak aurkeztera, eta agiri horiek aurkezteko gehieneko epea 2009ko irailaren 1a izango da. Azkeneko data horretatik aurrera, hartzaileen eskubidea indarrik gabe eta eraginik gabe geratu dela ulertuko da, eta, ondorioz, ez dute finkatutako ordainketaren azkeneko laurdena eskuratuko eta jada jaso ahal izan diren aurrerapenak itzuli egin beharko dituzte.

2.6. Berriazko ordenantza honen iraunaldia urtebetekoa (1) izango da, eta 2008-2009 ikasturteari buruzkoa izango da bakar-bakarrik.

2.7. Ikasleak hartzeko edo onartzeko oinarriak edo baldintzak, kasuan kasuko eskaerari erantsiko zaizkionak, ahalik eta zorrotasun handienarekin beteko dira.

2.8. Familia unitatea Amurrioko udalerrian erroldaturik ez duten ikasleak onartzen diren kasuan, Udalaren dirulaguntzaren ehuneko 50ak kasuan kasuko portzentaje murriztapena edukiko du, eta gainerako ehuneko 50a finkoa izango da beti. Hauexek osatuta ulertuko da familia unitatea:

a) Eskatzailea, ezkontidea –banatuta edo dibortziatuta ez bada–, eta ohiko bizikide duen izateko bikotekidea, baldin eta behar bezala egiaztatzen bada.

b) Etxebizitza berean bizi diren seme-alabak, zeinen zaintza eta babespena duten.

desarrollar, o la concurrencia de una situación, debiendo el beneficiario cumplir las obligaciones materiales y formales que se hubieran establecido.

- Que el proyecto, la acción, conducta o situación financiera tenga por objeto el fomento de una actividad de utilidad pública o interés social o de promoción de una finalidad pública.

El artículo 9 de la mencionada Ley 38/2003 establece que con carácter previo al otorgamiento de las subvenciones deberán aprobarse las normas que establezcan las bases reguladoras de concesión en los términos establecidos por la Ley.

El objeto de las presentes bases es regular el marco para la concesión de ayudas a centros escolares que oferten un servicio educativo dirigido a los y las escolares matriculadas en aulas de 2 años, con el objetivo de ayudar a hacer frente al déficit que pueda generar dicha actividad en el municipio de Amurrio.

2. Objeto y condiciones generales

2.1. Serán objeto de subvención los servicios educativos a prestar en las aulas de 2 años de centros escolares no públicos de Amurrio.

2.2. Los centros escolares beneficiarios de estas subvenciones no podrán obtener sobre financiación alguna a través de diferentes subvenciones a las que se pueda acoger en la etapa de 0 a 2 años.

2.3. Sólo se tendrán en cuenta los costes del personal que desarrolle sus funciones exclusivamente en las aulas de dos años, debiendo acreditarse mediante certificado expedido por la Dirección del Centro y acompañado por los justificantes de gasto correspondientes. En cualquier caso los importes de las nóminas no podrán ser inferiores al convenio anual aprobado en el sector, siendo esa cuantía el máximo a justificar por ese concepto.

2.4. Quedan también excluidos del objeto del presente convenio aquellos gastos que no pueden acreditarse mediante la presentación de nóminas y/o facturas, tales como gastos de provisiones o amortizaciones.

2.5. El abono de las subvenciones que resulten de las presentes bases se realizará de la siguiente manera:

- Tres cuartas parte del importe señalado como cantidad máxima en la cláusula anterior en el momento de la firma del convenio que se firmará de acuerdo con la cláusula 2.11.

- El importe restante se abonará una vez finalizado el curso escolar y previa presentación por el centro escolar de la correspondiente liquidación del presupuesto y de la relación de alumnado a que se hace referencia en el punto 2.9.

- En todo caso, no se satisfará esta última cantidad sin la previa acreditación documental referida en el párrafo anterior que, con quince días de antelación, habrá de presentarse ante el Ayuntamiento, siendo la fecha límite para la presentación de los citados documentos el 1 de septiembre de 2009. A partir de esta última fecha se entenderá decaído y sin efecto el derecho de los perceptores que, por ello, no recibirán la última cuarta parte del abono establecido y deberán reintegrar los adelantos percibidos.

2.6. La presente ordenanza específica tiene la duración de 1 año y se refiere exclusivamente al curso 2008-2009.

2.7. Las bases para la aceptación de alumnos o condiciones de admisión del alumnado, que se adjuntarán a la correspondiente solicitud, serán cumplidas con la máxima escrupulosidad.

2.8. En caso de admitirse alumnado cuya unidad familiar no esté empadronada en el municipio de Amurrio, el 50 por ciento de la ayuda económica del Ayuntamiento sufrirá la disminución porcentual correspondiente, siendo el otro 50 por ciento fijo en todo caso. Se entiende por unidad familiar la compuesta por:

a) El solicitante o la solicitante, su cónyuge, si no media separación o divorcio, o la persona con quien conviva como pareja de hecho de forma habitual, siempre que quede debidamente acreditado.

b) Los hijos e hijas sobre los que se tenga atribuida la guarda y custodia y convivan en el mismo domicilio.

2.9. Aurreko klausula eraginkor bihurtu ahal izateko, eta Amurrioko Udalak ordaindu beharreko kopuruak likidatzea lortze aldera, ikasturtean zehar ikastetxera bertaratutako ikasleen zerrenda emango zaio Udalarri, dirulaguntza likidatzeko behar den agiri multzoarekin batera –jatorriko ordainagiriak eta nominak emandako kopuruan, eta adierazitako ikasgelako gastuen eta diru sarrerren balantzea-. Zerrenda horretan, ikaslearen helbidea eta ikastetxera denboraldi osoan edo partzialean joan den adieraziko da, eta familia liburuaren kopia osoa ere erantsiko da. Halaber, matrikulen eta entitate publiko eta pribatu ezberdinetatik, 0, 1 eta 2 urteko ikasgeletarako hurrenez hurren, eskuratutako dirulaguntzen bidetik eskuratu diren diru sarrerren zerrenda xehatuko da.

2.10. Udalak edozein motatako argibideak eskatu ahalko ditu une oro, emandako dirulaguntza justifikatzeari dagokionez. Halaber, beren beregi jakinarazten da gezurra den edozein agiri aurkeztea hitzarmena ebazteko arrazoiak izango dela, eta laguntzaren onuradun den entitateak indarrean dagoen urtean emandako zenbatekoak itzuli beharko dituela.

Amurrioko Udalak datuak faltsutu edo ezkutatu izanaren arrastoak igartzen baditu, kanpoko auditoretza enpresa baten zerbitzuak kontratatu ahalko ditu eta horren kostua, txosten horretan bildutako ondorioak gorabehera, dirulaguntzaren onuradun den entitateari egotzi ahalko zaizkio.

2.11. Ikastetxe bakoitzak administrazio izaerako hitzarmena sinatuko du, berariazko ordenantza honetan ezarritakoari jarraiki, beraz, hura gauzatzetik eratorritako edozein gai ebazteko eskudun diren Epaitegiak Amurrioko Udalarri dagozkionak izango dira, eta, zehazkiago esatearren, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Sala.

3. Onuradunaren definizioa, eskaera aurkezteko epea eta diruz lagunduko den gehieneko zenbatekoa

3.1. Dirulaguntza hauenguek onuradun izan ahalko dira Eusko Jaurilaritzak homologatutako eta itundutako zentro pribatu guztiak, baldin eta Amurrioko udalerrian kokatzen badira eta 2 urteko ikasgelen zerbitzua ematen badute.

3.2. Goian adierazitako ikastetxe bakoitzeko legezko ordezkariak Amurrioko Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu ahalko du dirulaguntza eskabidea urtarilaren 31a baino lehen, betiere, aurreko dirulaguntzak justifikatzeko agiri multzo guztia aurkeztu bada eta haiek likidatutzat jotzen badira.

3.3. 2009 urtean esleitu beharreko gehieneko kopurua 51.000 eurokoa da, eta zuzkidura 422.481 partidatik hartzen du.

4. 2 urteko ikasgelen zerbitzua emateagatiko dirulaguntzaren zenbatekoa esleitzeko irizpideak

4.1. Amurrioko Udalak hurrengo irizpideak jarraituko ditu 2 urteko ikasgelen hezkuntza zerbitzua eskaintzen duten ikastetxeei diruz lagundu beharreko zenbatekoa zehazteko, eta hori hitzarmenaren bigarren klausulan jasoko da.

4.1.1.- Funtzionamenduan dagoen gela kopurua.

Funtzionamenduan dagoen bi urteko ikasgela (linea) bakoitzeko 8 puntu.

4.1.2.- Ikasle kopurua.

Matrikulatutako ikasle bakoitzarengatik puntu 1.

4.1.3.- Irakasleen maila:

a) Irakasle titularra (Haur Hezkuntzako diplomaduna): 50 puntu.

b) Hezitzailea: 15 puntu.

c) Hezitzaile laguntzailea: 10 puntu.

Puntuazio horiek bat datoz lanaldi oso batekin. Lanaldiak osoak ez badira, puntuazioak proportzionalki murriztuko dira.

4.1.4.- Ikastetxearen ezaugarriak eta irakasleen euskara maila:

a) "Erabilera publikoko entitate" modura kalifikatutako zentroa + EGA: 100 puntu.

b) "Erabilera publikoko entitate" modura kalifikatutako zentroa: 75 puntu.

c) Itundutako kooperatiba + EGA duten irakasleak: 75 puntu.

d) Itundutako kooperatiba: 50 puntu.

2.9. Para poder hacer efectiva la cláusula anterior y al objeto de lograr la liquidación de las cantidades que debe abonar el Ayuntamiento de Amurrio, junto a la documentación necesaria para liquidar la subvención - facturas originales y nóminas por el importe concedido y un balance de gastos e ingresos del aula señalado - se facilitará al Ayuntamiento una relación del alumnado asistente durante el curso con expresión de su domicilio y tiempo, total o parcial, de su asistencia, así como fotocopia íntegra del libro de familia. Así mismo, se detallará una relación de los ingresos obtenidos a través de las matrículas y subvenciones obtenidas por diferentes entidades públicas y privadas en las aulas de 0, 1 y 2 años respectivamente.

2.10. El Ayuntamiento podrá solicitar en todo momento cualquier tipo de aclaración en relación a la justificación de la subvención concedida. Así mismo, se advierte expresamente que la presentación de cualquier documento falso será motivo de resolución del convenio y que la entidad beneficiaria de la misma deberá reintegrar el importe concedido en el año en curso.

Si el Ayuntamiento de Amurrio detectase indicios de falsificación u ocultación de datos, podrá contratar los servicios de una empresa de auditoría externa cuyo coste, en función de las conclusiones del citado informe, podrá ser repercutido a la entidad beneficiaria de la subvención.

2.11. Cada centro escolar firmará un convenio de carácter administrativo de acuerdo con lo establecido en esta ordenanza específica, por lo que los Tribunales competentes para dirimir cualquier cuestión dimanante de su ejecución serán los correspondientes al Ayuntamiento de Amurrio y, en concreto, la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

3. Definición de beneficiario, plazos de solicitud e importe máximo a subvencionar

3.1. Podrán ser beneficiarios de estas subvenciones todos aquellos centros privados homologados y concertados por el Gobierno Vasco que estén ubicados y presten el servicio de aulas de 2 años en el municipio de Amurrio.

3.2. El o la representante legal de cada centro escolar arriba señalado podrá solicitar la solicitud de subvención en el Registro General del Ayuntamiento de Amurrio antes del 31 de enero siguiente y cuando haya presentado toda la documentación justificativa relativa a subvenciones anteriores y se den por liquidadas las mismas.

3.3. El importe máximo a asignar en el año 2009 asciende a 51.000 euros y obtiene su dotación de la partida 422.481.

4. Criterios para asignar el importe de la subvención por la prestación del servicio de aulas de 2 años

4.1. El Ayuntamiento de Amurrio seguirá los siguientes criterios para determinar la cuantía a subvencionar a los centros escolares que ofrezcan un servicio educativo en las aulas de 2 años y que se recogerá en la cláusula segunda del convenio.

4.1.1.- Numero de aulas en funcionamiento.

Por cada aula (línea) de dos años en funcionamiento 8 puntos.

4.1.2.- Numero de alumnado.

Por cada alumno o alumna matriculada 1 puntos.

4.1.3.- Nivel del profesorado:

a) Profesor o profesora titular (diplomada en Educación Infantil): 50 puntos.

b) Educador o educadora: 15 puntos.

c) Educador o educadora auxiliar: 10 puntos.

Estas puntuaciones corresponden a una jornada laboral completa.

En caso de que las jornadas no sean completas, las puntuaciones se disminuirán proporcionalmente.

4.1.4.- Características del centro y nivel de euskera del profesorado:

a) Centro calificado como "Entidad de utilidad pública"+EGA: 100 puntos.

b) Centro calificado como "Entidad de utilidad pública": 75 puntos.

c) Cooperativa concertada + profesorado EGA: 75 puntos.

d) Cooperativa concertada: 50 puntos.

- e) Itundutako zentro pribatua + EGA duten irakasleak: 50 puntu.
- f) Itundutako zentro pribatua: 25 puntu.
- g) Zentro pribatua + EGA duten irakasleak: 25 puntu.
- h) Zentro pribatua: 0 puntu.

Ikastetxe bakoitzari esleituko zaion zenbatekoa lortzeko, ikastetxe bakoitzaren parte hartze portzentajea aplikatuko zaio eskatzaile guztiek eskuratutako puntuazio osoari, 3.3 klausulan adierazitako zenbatekoa aplikatuta.

5. Laguntzak izapidetzea

5.1. Hezkuntza Arloak izapidetuko ditu oinarri hauen bidez araututako dirulaguntza eskaerak, eta organo eskumendunari proposatuko dio, hala badagokio, onartzeko.

5.2. Amurrioko Udalak iragarki oholean iragarkia jarriz jakinaraziko ditu ekainaren 30a baino lehen emandako dirulaguntzak zeintzuk diren.

31. OINARRIA.- SEME-ALABAK JAI O ETA ADOPTATZEAGATIK LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK ARAUTZEN DITUEN ARAUA

1. Lege eta ekonomia esparrua

Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean, Administrazioak pertsona publiko zein pribatuei egiten dizkien "diru entrega" moduan definitzen dira dirulaguntzak, betiere, baldintza hauek beteta:

- Entrega onuradunen zuzeneko kontraprestaziorik gabe egitea.

- Halako helburua lortzeko, halako proiektua gauzatzeko, halako ekintza egiteko, halako jarrera izateko edo halako egoera gertatzeko lotuta ematea dirua. Horako horiek eginda edo egiteko egon daitezke, eta onuradunak zehaztutako betebeharrak formal zein materialak bete beharko ditu.

- Proiektuak, ekintzak, jarrerak edo finantzaturiko egoerak hauxe izatea helburu: erabilera publikoko, interes sozialeko edo xede publikoko ekintzak sustatzea.

38/2003 Legearen 9. artikulua ezartzen duenez, dirulaguntzak eman orduko, legeak ezartzen duen bezala onartu beharko dira dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak ezartzen dituzten arauak.

Seme-alabak jai o eta adoptatzeagatik laguntzak emateko oinarriak arautzea da oinarri hauen xedea, jaiotza berriei gizarte babes gehiago emateko eta babes hori osatzeko, jaiotzak sustatzearen.

2. Xedea eta baldintza orokorrak

2.1. Oinarri hauen bidez, dirulaguntzak emango dira 2008an eta 2009an jaiotako edota adoptatutako seme-alabengatik.

2.2. Laguntzaren onuradun izango den pertsona Amurrioren errol-datuta egon beharko da 5 urte azkeneko 10 urteetan; eta horietatik batean, gutxienez, modu jarraituan eta dirulaguntzaren xede den jardura egin aurretik.

2.3. Familia unitateak ezin du urtean 36.750 euro edo 46.500 euro -familia ugariak- izan. Diru kopuru horiek geroago adieraziko den bezala zenbatuko dira.

2.4. Dirulaguntzaren onuradun izateko, ezinbestekoa da eskatzailearen familia guztia Amurrioren errol-datuta egotea, jaiotza edo adopzioa gertatzen den unean.

3. Onuradunaren eta familia unitatearen definizioa

3.1 Hauexek osatuta ulertuko da familia unitatea:

- Eskatzailea, ezkontidea -banatuta edo dibortziatuta ez bada- , eta ohiko bizikide duen izateko bikotekidea, baldin eta behar bezala egiaztatzen bada.

- Etxebizitza berean bizi diren seme-alabak, zeinen zaintza eta babespena duten.

3.2 Familia unitatearen kide den aita edo ama izan daiteke laguntza honen onuradun. Laguntzaren onuradun pertsona bakarra denez gero, umeen zaintza eta babespena hainbat pertsonen artean

- e) Centro privado concertado + profesorado EGA: 50 puntos.
- f) Centro privado concertado: 25 puntos.
- g) Centro privado + profesorado EGA: 25 puntos.
- h) Centro privado: 0 puntos.

El importe que se asignará a cada centro escolar se obtendrá aplicando el porcentaje de participación de cada centro escolar respecto el total de las puntuaciones obtenidas por todos los solicitantes, aplicado al importe señalado en la cláusula 3.3.

5. Tramitación de las ayudas

5.1. El Área de Educación será el encargado de tramitar las solicitudes de subvenciones reguladas en las presentes Bases y proponer al órgano competente su aprobación, si procede.

5.2. El Ayuntamiento de Amurrio dará noticia en el tablón de anuncios de las subvenciones concedidas antes del 30 de junio.

BASE 31.- NORMA REGULADORA DE LAS BASES PARA LA CONCESIÓN DE AYUDAS POR NACIMIENTO/ADOPCIÓN DE HIJOS/AS

1. Marco legal y económico

La Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones define las subvenciones como las "entregas dinerarias" de la Administración a personas públicas o privadas, cuando se dan los siguientes requisitos:

- Que la entrega se realice sin contraprestación directa de los beneficiarios.

- Que la entrega esté sujeta al cumplimiento de un determinado objetivo, la ejecución de un proyecto, la realización de una actividad, la adopción de un comportamiento singular, ya realizados o por desarrollar, o la concurrencia de una situación, debiendo el beneficiario cumplir las obligaciones materiales y formales que se hubieran establecido.

- Que el proyecto, la acción, conducta o situación financiera tenga por objeto el fomento de una actividad de utilidad pública o interés social o de promoción de una finalidad pública.

El artículo 9 de la mencionada Ley 38/2003 establece que con carácter previo al otorgamiento de las subvenciones deberán aprobarse las normas que establezcan las bases reguladoras de concesión en los términos establecidos por la Ley.

El objeto de las presentes bases es regular el marco para la concesión de ayudas por nacimiento y/o adopción de hijos e hijas, con el objetivo de ampliar y complementar la cobertura social de los nuevos nacimientos para el fomento de la natalidad.

2. Requisitos y condiciones generales

2.1. Serán objeto de subvención por las presentes bases el nacimiento y/o adopción de niños y niñas durante los años 2008 y 2009.

2.2. La persona beneficiaria de la ayuda debe estar empadronada en Amurrio 5 años en los últimos 10 años y al menos uno de ellos de forma continua e inmediatamente anterior a la fecha en que se produce el hecho subvencionable.

2.3. La unidad familiar no deberá superar los 36.750 euros a los 46.500 euros anuales en el caso de las familias numerosas, computados según se señala más adelante.

2.4 Es requisito indispensable para ser beneficiaria de la ayuda, que toda la unidad familiar a la que pertenece la persona solicitante se encuentre empadronada en Amurrio en el momento de producirse el nacimiento o adopción.

3. Definición de beneficiario y de unidad familiar

3.1 Se entiende por unidad familiar la compuesta por:

- El solicitante o la solicitante, su cónyuge, si no media separación o divorcio, o la persona con quien conviva como pareja de hecho de forma habitual, siempre que quede debidamente acreditado.

- Los hijos e hijas sobre los que se tenga atribuida la guarda y custodia y convivan en el mismo domicilio.

3.2 Puede ser beneficiaria de esta ayuda el padre o la madre integrante de la unidad familiar. Dado que la persona beneficiaria es única, en el supuesto de guarda y custodia compartida entre varias